

Super PEPO. Musikala





Atzo emankizun bat izan genuen ikastetxean, oso hunkigarria. Nire lagunetako inork ez dauka gurea bezalako ekitaldi areto ederrik bere ikastetxean. Musikala entseatzeko agertokira igo ginen lehen egunean, beldurtu egin ginen pixka bat, butaka ilara haiek guztiak gure aurrean hutsik ikustean. Lan dezente egin beharko genuen aretoa betetzeko. Esan eta egin: emankizunaren eguna iritsi zenerako, salduta zeuden sarrera guztiak!

Irakasleak esan zigun ez begiratzeko gortinen artetik, baina guk ezin izan genion tentazioari eutsi, eta zirrikitu batetik begiratzen hasi ginen, kontuz-kontuz.

Denak zeuden han: gure ikaskideak, gurasoak, anai-arrebak, lagunak... Oso urduri geunden, baina hunkituta ere bai, oso helburu garrantzitsua bete genuelako: beharreen zegoen jende askori laguntzea.

Abentura horretan nola murgildu ginen azalduko dizuet. Duela hilabete pare bat hasi zen guztia:





Ilunabarra zen, eta ohean sartuta nengoen, baina amak piztuta zeukan irratia, eta dena entzuten nuen. Haiti herrialdeari buruz ari ziren hizketan. Esan zuten koleraren eraginez jende asko gaixotzen eta hiltzen ari zela. Eta behartsuei bakarrik eragiten ziela gaixotasun horrek.

- Ez dago eskubiderik, esan zuen amak.

Hori guztia entzunda, ezin izan nuen lorik egin, galdera kezagarri asko etorri zitzaizkidalako burura.

- Zein ote da behartsuei bakarrik eragiten dien gaixotasun hori? Agian, bankariak joaten zaizkie bisitan, eta behar baino diru gutxiago izanez gero, gaixoarazi egiten dituzte?, pentsatu nuen nire baitan. Beldur nintzen, kontsola joko bat erosi berri nuelako, eta nire itsulapikoa hutsik geratu zelako.

- Eta zergatik esan ote du amak ez dagoela eskubiderik? Etxean, batzuetan esaten didate betebeharrak eta eskubideak ditudala. Nik beti eskubide gehiago nahi izaten ditut, baina ez nuen uste gaixorik ez egoteko eskubidea eskatu behar izango nuenik. Ene bada! Ez ote zaizkit orain arazoak sortuko, itsulapikoa hutsik dukitzeagatik?

Hurrengo egunean, han-hemen arakutzen ibili nintzen. Superheroiak Akademan, goiburu bat geneukan: «zalantzaren bat izanez gero, informazioa bilatu». Lehenengo deskubritu nuenak harritu egin ninduen, eta aldi berean haserretu.

- Kolera gaixotasuna ur garbirik ez duten lekuetan sortzen da, eta ur zikina kanporatzeko estolderiarik ez dagoen inguruetan. Horregatik gaixotzen dira behartsuenak!

Baina, gainera, erraza da sendatzen! Ura besterik ez da behar! Ez al da sendagai merkea? Beraz, nola liteke hainbeste pertsona gaixorik egotea? Hemen, kanila ireki eta nahi bezainbeste ur irteten da-eta!

Oso triste jarri nintzen egoera hain bidegabea zela ikusita. Behartsuenak gaixotzen dira, edateko ur garbirik ez dutelako eta estoldarik gabeko tokietan bizi direlako.

- Eta zer esan eskubideei buruz? Konturatu nintzen haur batzuek ez daukatela osasunik, janaririk edo eskolara joateko aukerarik, oinarrizkoak diren arren.

Nire lagunei Haitin kolerarekin gertatzen ari zena azaldu nienean, harrituta gelditu ziren.

Sandra, Anaren ahizpa zaharrena, gurekin zegoen, eta zera esan zigun:

- Mundu hau bidegabea da, askok eskubiderik oinarrizkoenak ere ez daukatelako.
- Zer egin dezakegu hori konpontzeko?, galdetu nuen.

Anak zera esan zuen berehala:



- Haitira joan!

Harrituta begiratu genion denok.

- Ana, zortzi urte ditugu; ezin dugu haraino joan.
- Egongo da haiei laguntzeko beste moduren bat.

Sandrak esan zuen:

- Gobernuz kanpoko erakunde batera jo dezakegu. Dirua bilduko dugu, Haitiko jendeari laguntzeko.
- Nahikoa izango al da gure itsulapikoetan daukagun dirua? -galdetu nuen.
- Ez -esan zuen Sandrak-. Gainera, zabaldu egin behar dugu informazioa. Jende askok parte hartzeko moduko zerbait antolatu behar dugu.
- Badakit zer egin! Badakit zer egin! Musikal bat antola dezakegu! -esan zuen Anak. Berari izugarri gustatzen zaio dantzatzea eta kantatzea.





Oso ideia ona zela pentsatu genuen denok, eta irakaslearengana joan ginen berehala, gure asmoa azaltzera. Kontatu genionean, begira-begira geratu zitzaigun, harrিতuta:

- Ideia bikaina iruditzen zait musikala egitea. Haurren eskubideei buruzko abestiak kanta ditzakezue. Nahi baduzue, lagundu egingo dizuet.

Egia esateko, Lukasi ez zitzaion ideia hura gehiegi gustatu. Oso lotsatia da. Irakasleak klasean zerbait galdetzen dionean, gorri-gorria jartzen da, izerditan, eta asko kostatzen zaio hitz egiten hastea. Beraz, nola moldatuko zen ikusle mordo baten aurrean, kantatzen eta dantzatzen?

Prestaketan lehenengo astean, Lukas ez zen behin ere azaldu. Arratsalde batean, ordea, Lukasek laguntza eskatu zion Anari, bere arrebaentzat opari bat erosteko. Oso lotsatia zenez, bazekien dendan laguntza edo aholkua eskatu behar izanez gero, ez zela gai izango saltzaileari ezer esateko.

Anak lagundu egin zion, baina Lukasek denbora asko pasa zuenez aukeratzen, berandutu egin zitzaion.

- Ai ene! Zazpiak dira! Duela ordubete egon behar nuen entseguan! -esan zuen Anak-. Gaur banatu behar zituzten paperak, eta bakoitzak gustukoena aukera zezan.

-Barkatu, Ana. Nire errua izan da. Berandu iritsiko zara, eta, gainera, gustatzen zaizun papera beste norbaiti emango zioten honezkero.

-Lasai, Lukas. Garrantzitsuena musikalean parte hartzea da; paperaren kontuak ez du inolako garrantzirik. Bihar arte!

Lukas pentsakor geratu zen: Anak gustuko papera galdu zuen berari laguntzeagatik, eta bera, lotsarengatik, ez zen gai jende askori lagunduko zion emankizunean parte hartzeko.

Beraz, hurrengo egunean, Lukas entsegura joan zen, eta taldearekin bat egin zuen. Zuhaitzaren papera egokitu zitzaion, gelditzen zen bakarra zelako.

Emankizunaren egunean, dardaraz zegoen, oso urduri. Bere burua lasaitzeko, zera pentsatu zuen: bera gaizki pasatzen ari zela, baina askoz ere okerrago zeudela Haitiko gaixoak. Haiek bai merezi zutela lotsak gainditzeko ahalegina egitea!

Amaitutakoan, txaloka hasi ziren guztiak, eta hamar minutu eman zituzten horrela, gelditu gabe! Baina, halere, irakasleak bildutako diruaren berri eman zuenean egiten zuten txalo gehien. Han geunden guztiok harro sentitu ginen egindakoaz. Zalantzarik gabe, ahaleginak merezi izan zuen.

Eta Lukasek erakutsi zigun benetako superheroiak ez direla beldurrik izaten ez dutenak, baizik eta besteei laguntzeko beldurrari eta lotsari aurre egiten dietenak.

